

ARRATIA POSTA BIDEZ

Garai bateko Arratiaren eta arratiarren berri ematen duen erakusketa Lemoan

 **KULTURA /** Xabier Izaga Gonzalez

Lemoako Kotxepin kultur etxean gaur zabalduko den erakusketaren antolatzaileek diotenez, erdi hutsik daude postontziak. «Internet, irratia, telebista... bidez heltzen da orain mundua gure atariraino. Baina garai batean posta txartelei esker ezagutzen ziren munduko txokoak». Izan ere, XIX. mendearen amaieran hasi zen posta txartelen erabilera hedatzen eta turismoak areagotu egin zuen. Edonola ere, Internet bidez barik, posta txartelen bidez emango dute XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen erdialdera bitarteko Arratiaren berri, bailara horren gaineko posta txartelen argazkiak ikusgai jarri baititu “Arratia posta txartelean” erakusketak.

Gehien-gehienak izenburu bereko liburu batean ageri dira, erakusketaren komisario Jon Urutxurtuk Bizkaiko ibar horretako herriak eta hainbat bazter ageri diren posta txartel zaharrak bilduta 2014an argitaratu zuen lanean, hain zuzen. 2019an abiatu zuten Igorren erakusketa ibiltari hau, bertako Udalak eskatuta, eta orain Lemoako Kotxepin kultur etxera ere eramateko eskatu zioten Urutxurturi.

ARRATIOKO ONDARE HISTORIKOA

Lemoako Udalaren babesarekin eta Igorrekoaren laguntzarekin, «Arratiaren eta arratiarren irudiak azaltzen diren posta txartelak erakustea eta ezagutzera ematea» helburu duen erakusketa zabalik egongo da urtarrilaren 7ra arte, «Arratiako ondare historikoaren atal bat berreskuratzeko eta ezagutzera emateko».

Behar handia egin du Urutxurtuk postalak batzen:

Gaur inauguratuko dute «Arratia posta txartelean» argazki erakusketa Lemoako Kotxepin kultur etxean, urtarrilaren 7ra arte ikusgai egongo dena. Arratiaren gaineko 90 bat posta txartelen argazkiak erakutsiko ditu, ia denak XX. mendearen lehen erdian eginak. Jon Urutxurturen izen bereko liburuan oinarritutako ekimena da.

«Apurka-apurka, urteetan zehar bildu nituen. Niri betidanik gustatu izan zaizkit argazkiak». Arratiako argazki zaharrak edo postalak ikusten zituenean, «Bizkai sakona» esaten zaion hori ezagutarazi behar zuela pentsatzen zuen, eta Arratiari buruz editatu di-

«Igande arratsaldea», Felipe Manterolak editatutako posta txartela. «ARRATIA POSTA TXARTELEAN»

ren posta txartel klasikoak bilduz joan zen. Laurogeita hamar bat postal lortu zituen eta bakoitzaren fitxa egin zuen izenburua jarrita. «Protagonistak ere agertzen dira: argazkilaria, editorea, inprimatzailea nor den... bakoitza bere fitxagaz». Zenbait kasutan, tokia de-

sagertu bada, haren gaineko azalpena ematen du, baita pertsonaia batzuen gainekoa ere; «adibidez, argazki batean agertzen den mutiko bat, 37ko bonbardaketa batean hil zutena». Izan ere, 1910eko hamarkadako posta txartel batean Esteban Astondoa nekazari gaztea ageri da beharrean emakume biren ondoan; 1937ko apirilaren 7an, faxisten aire bonbardaketa batean bizia galdu zuen.

Liburua argitaratu eta gero ere beste postalen bat ere aurkitu du, eta azken horiek ere bildu ditu erakusketara.

ESPERO BAINO GEHIAGO

Guztira 90 posta txartel ingururen argazkiak daude ikusgai, 24 x 38 cm-ko tamainan. Hasieran aurkitzea espero zuen baino askoz gehiago: «Sarritan,



Igande arratsaldea

«Areatzako eliza», alemanez idatzitakoa; erdian, zezenketa Diman; behean, Lemoako taberna batean karta jokoa.
«ARRATIA POSTA TXARTELEAN»

Arratia iraganari loturiko parajetzat hartu da, Bizkaia zaharkituaren paradigmatzat. Horrek pentsarazi liezaguke posta txartel ilustratuak argitaratu ziren lehen urteetan ez zuela erakarriko editoreen arreta». Hala ere, lan honetan bildutako kopurua ikusita, «bistakoa da ez zela horrela izan».

Arratia eta arratiarrei buruzko posta txartelak argitaratu zituztenen artean, hainbat enpresa eta partikular daude. Horietako batzuk identifikatu ditu Urutxurtuk: Felipe Manterola, Foto Lux, L. G. Bilbao, Librería E. Verdes, Librería Villar, Artes Gráficas Lerchundi S. A., P. Ortiz, Seminario Menor de Ntra. Sra. De Begoña, Areatzako bainuetxea, Bizkaiko Foru Aldundia, Museo de las Guerras, Landáburu Hermanas eta L. Roisin. Indalecio Ojanguren eta Durangoko Foto Sol argazki denda ere editoretzat har daitezkeela dio, beraiek editaturiko bi argazki-posta txartel bazten baitira.

FELIPE MANTEROLA

Argitaratzaile horien artean, Felipe Manterola (Zeanuri, 1885-1977) nabarmendu du Urutxurtuk, bai erakusketan bai GAUR8rekin izandako solasean, alde batetik arratiarra izateagatik, eta bestetik, berak editatu zituen posta txartelen balio etnografikoagatik.

Zeanuriztar hark inoiz ez zuen argazkigintza ogibide izan, baina hainbat argazki editatu zituen. XX. mendeko bigarren hamarkadan posta txartelen bildumak ere editatu zituen, berak egindako argazkiak erabiliz. Batzuk Alemaniaren eman ziren argitara, beste batzuk Frantzia eta Bilbon. Bizkaiko hiriburuan, Foto Lux etxeak prestatu zituen. Badu sail bat euskarazko lerrobu-


ruekin, erakusketan ikusgai dagoena: “Eusko-lugin lanak”, “Eusko artalde”, “Igande arratzalde”, “Bola-tokia”, “Eusko-etxarte”, “Eusko-basarte”, “Zeanuriko-txadona”. Haien atzealdean egilearen eta herriaren izenak ageri dira: «Felipe de Manterola – Ceánuri».

Gráficas Lerchundi Bilboko etxearen lanak ere azpimarratu dituzte, hala nola 1944an editatu eta inprimatu zuen hamar posta txartelez osatzen den saila. “Serie A. Arratia. Vizcaya” izenburua daraman gutun-azal batean bilduta argitaratu zituen Areatzaren, Dimaren, Igorreraren eta Zeanuriren gaineko bina postal eta Artearen eta Lemoaren gaineko bana. Azaltzen diren irudiak Luis de Lerchundiren marrazkiak dira.

MENDE ERDIKO POSTA TXARTELAK

XX. mendearen hasieratik 1950eko hamarkadara arte editatutako posta txartelak aurkeztuko dira. Zaharrenak 1906. urtea baino lehenagoko bi dira. Batean Areatzako eliza ageri da eta bestean, Igorrekoa, biak koloretan. Aurrealdean Areatzakoak “46 Bilbao - Iglesia de Arratia” izenburua dauka, eta Igorrekoak, “47 Bilbao - Iglesia de Amatia”, inprimatze akats eta guzti. Posta txartel biok Bilboko Librería Villar liburu dendak editatu zituen, 52 alez osatutako serie batean. Areatzakoa 1907ko abenduaren 27an Munichera bidali zuten. Aurrealdean alemanez idatzitako testua dago, suhi batek bere amaginarrebari bidalitako mezua, urte berri ona opatzeko, besteak beste.

Beste herrialde batzuetara bidalitako postalak nola lortu zituen azaldu du Urutxurtuk; esate baterako, Alemaniara bidalitakoa: «Areatzan bainue-





Felipe Manterolaren
autorretratu; Zeanuriko
nekazariak (ezkerrean,
Esteban Astondoa), eta
Gorbeiaiko tontorra.
«ARRATIA POSTA TXARTELEAN»

txe bat egon zen, eta segurue-
nera bertan egongo zen baten
batek bidalitako postala da.
Horrelakoak antigoalekoen
dendetan egoten dira, edo bi-
garren eskuko liburu dende-
tan, eta salgai egoten dira. Ur-
teetan zehar joan, ikusi, 'hau
nire herrikoa da', eta apurka-
apurka batu izan ditut».

Gainontzeko posta txartelak
1906tik aurrerakoak dira. Er-
diak-edo 1906 eta 1920 urte
artean editatuak, eta Bizkaiko
Foru Aldundiak auzo eskolen
gainean argitaratu zituenak,
1922koak. Areatzako asiloaren
postal bat 1926. urtearen ingu-
rukoa da; Gerren Museoak Le-

moako Burdin Hesiaren gaine-
an argitaratutakoa, 1937koa
edo geroagokoa; Areatzako
bainuetxeari buruzko gehie-
nak eta Arteako Seminario
Txikiak argitaratutakoak,
1940ko hamarkadakoak, eta
Artes Gráficas Lerchundiren
saila 1944an argitaratua.
1950eko hamarkadako batzuk
ere badaude, hala nola Gor-
beiaiko Gurutzea erakusten
duena.


ZINEMA IRUDIAK

Urutxurtuk dioenez, posta
txartela gaur egun, Internet
eta kultura digitalaren bidez
izugarri hedatzen ari diren sa-

re sozialen aurrekari izateaz
gain, harreman postalerako
baliabide hutsa baino zerbait
gehiago dela esan daiteke, eta
garai bat islatzen eta sinboli-
zatzen duen benetako objektu-
tzat jo daiteke. «Egun, posta
txartela bilduma-objektu
bihurtu da eta, aldi berean, ga-
rai bateko paisaiak, monu-
mentuak, eraikinak, ohiturak,
janzkerak... ezagutzeko infor-
mazio iturri ikonografiko ga-
rrantzitsua da, zinea, prentsa
edo irudiak zabaltzeko beste
sistema batzuk bezalaxe».

XX. mendearen hasieran eta
erdialdean Arratian grabaturi-
ko zinema irudi batzuk ere ba-
daude erakusketan ikusgai, Fe-
lipe Manterolak 1928. eta 1932.
urteen artean filmatutakoak.
Bestelako irudi batzuk ere
agertuko dira, hala nola Arra-
tiako tranbiarenak, berriago-
ak, nolabait «osagarri» mo-
duan daudenak.

Liburua idatzi eta hartan oi-
narritutako erakusketak komi-
sariatu ditu gero Jon Urutxur-
tuk, baina bitartean beste lan



**Arratiaren eta arratiarren irudiak azaltzen
diren posta txartelak erakutsi nahi dituzte,
«Arratiako ondare historikoaren atal bat
berreskuratzeko eta ezagutzera emateko»**

**XX. mendearen hasieratik 1950eko
hamarkadara arte editatutako posta txartelak
aurkeztuko dira. Zaharrenak 1906. urtea baino
lehenagoko bi dira**

batzuetan ere jardun du. Dago-
eneko amaituta dauka beste li-
buru bat, Zornotza edo Amore-
bieta-Etxanoren gainekoa, eta
orain argitaratzaile bila dabil.
Konbentzimendu batekin egi-

ten ditu lanok: «Gaurkoa uler-
tzeko eta etorkizunean aurre-
rantz egiteko, garrantzitsua da
iragana ezagutzea». Erakuske-
ta honek horretan lagundu
nahi du.